

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **IKTak eta Konpetentzia Digitalak**

**Hezkuntzan, Etengabeko Formakuntzan eta Hizkuntzen  
Irakaskuntzan**

Berezko Tituluko Proiektua

---

### **Haurren solasaldiaren zuzenketa irakasteko Moodle plataforma**

---

Egilea

*Lide Alcalde Zufiaurre*

Zuzendaria

*Mikel Iruskieta*



**ueu**

udako  
euskal unibertsitatea

**2020-2021**

---

## Laburpena<sup>1</sup>

Sarri askotan irakasle izango diren ikasleei hurrek nola hitz egiten duten jakitea zaila egiten zaie. Horrez gain, haur bati hizkuntza irakastea edota hizkuntza zuzentzeko teknikak nola erabili behar diren jakitea ez da erraza izaten, modu horretako elkarrizketa gutxi entzun duenarentzat. Horrez gain, egun, ikastaro gutxi daude hizkuntzako datu errealak nola erabil daitezkeen ikasteko Haur Hezkuntzan eta euskaraz.

Honela bada, *Feedback zuzentzailea* delako tresna erabiltzen da haurren solasaldian esku-hartzeko. Gai nagusienetako bat da haurren hizkuntza-jabekuntzaren prozesuari dagokionez. Haurren solasaldian sor daitezkeen gramatika nahiz morfologia zailtasun edo akatsak zuzentzeko erabili ohi den baliabideetako bat da, atzeraelikadura zuzentzailea. Irakasleek feedback zuzentzailea hizkuntzaren erabilera zuzena sustatzeko erabili ohi dute, zeregin bati buruzko informazioa jaso eta modu eraginkorrago batean nola burutu ahalbidetzen du tresna honek. Askotan argibide inplizituek edo esplizituek baliatzen dira ikasleen adierazpen okerrak zuzentzeko. Argibide ohikoenak birmoldaketak, berrespen egiaztapenak, argitzeko eskaerak, errepikapenak, etab. izaten dira. Halere, hezkuntza arlotik at, tresna honen erabilera guraso eta seme-alaben arteko elkarrekintzetan ere aurkitzen da.

Proiektu honen helburua da sortzea helduentzat prestaturiko Moodle ikastaro bat hizkuntza datu errealen gaineko feedback zuzentzailea lantzeko. Horrela, helduek jakingo dute haurren solasaldian esku-hartzea nola egin behar duten. Ikastaroan, ikasleek feedback zuzentzailearen nondik norakoak ikasi dituzte bai ariketen bidez, bai teoria landuz. Beraz, ikastaroaren helburua helduek haurren solasaldian sorturiko akatsak zein modutan zuzendu jakitea izan da.

**Hitz-giltzak:** Feedback zuzentzailea, haurren hizkuntza-jabekuntza, solasaldia, argibide inplizitu eta esplizituak, IKTak.

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi nizkieke, batetik, CHILDES corpus osatzeko lana hartu duten ikertaldee. Nire lanaren euskarri diren haurren grabaketa nahiz transkripzioak eskura izatea posible egin baitute.

Eskerrak, bestetik, graduondoan zehar irakasle izan ditudanei eta, batez ere, Mikeli. Euren jakintza nirekin partekatzeagatik eta euren gidaritzza eta laguntzarik gabe lan hau eta hilabete honetan ikasitakoa ez litzatekeelako posible izango.

---

## **Abstract**

Feedback correction is one of the main topics in the children's language ownership process. The grammar or morphology that may arise in children's conversation is one of the means used to correct difficulties or defects, the reversal corrective. Teachers use corrective feedback to promote the correct use of language, receive information about a task, and make it possible to perform it more efficiently. They often use implicit or explicit explanations to correct the wrong statements of their students. The most common directions are remodelling, verification, application for clarification, repetition, etc. However, outside education, the use of this instrument is also found in interactions between parents and children.

Through this project it has been proposed to examine the conversation of children and adults in Basque, and, using a variety of ICT (Information and Communication Technologies) resources, a Moodle course, prepared for adults to learn how to participate in children 's conversation. During the course, students have learned the whereabouts of correcting feedback both through exercises and through theory. The object of the course, therefore, has been to know in what manner to correct the defects produced in children's conversation. So that good results can be obtained through the conducting feedback, all these factors must be taken into account.

**Keywords:** Feedback correction, children's language ownership, conversation, implicit and explicit explanations, ICT.

---

# Gaien aurkibidea

---

Laburpena.....	1
Gaien aurkibideak.....	3
Irudien aurkibidea.....	4
1. KAPITULUA.....	7
Sarrera.....	7
2. KAPITULUA.....	9
Proiektuaren helburuak eta metodologia.....	9
3. KAPITULUA.....	10
IKTen beharraz.....	10
3.1 Blended learning ala e-learning?.....	11
4. KAPITULUA.....	12
1. Marko teorikoa.....	12
1.1. Aurrekariak.....	12
1.2. Feedback zuzentzailea.....	13
1.3. Terminologia eta motak.....	14
1.4. Feedback zuzentzaile eraginkorrenaren bila.....	15
5. KAPITULUA.....	17
Proiektuaren garapena.....	17
1. Moodle ikastaroa.....	17
1.1. Egitura.....	17
1.1.1. Orokorra.....	17
1.1.2. Sintesi bidean.....	18
1.1.3. Gaiak eta Azken Produktua.....	19
1.2. Baliabideak.....	22
1.2.1. Erabilera.....	23
1.3. Ikastaroaren metodologia.....	26
1.4. Gaitasun digitalak.....	27
6. KAPITULUA.....	30
Ondorioak.....	30

**Bibliografia.....35**

---

## Irudien aurkibidea

---

1. irudia. Orokorra *atala eta ezkerreko zutabea ikusgai*
2. irudia. Sintesi bidean *atala*
3. irudia. 1. *gaia*. Corpusa: zer da?
4. irudia. 2. *gaia*. Haur eta helduak solasean
5. irudia. 3. *gaia*. Feedbacka: inplizitua ala esplizitua
6. irudia. 4. *gaia*. Norbere corpusekin lanean
7. irudia. *H5P tresna*
8. irudia. *Azken produktua*
9. irudia. *Ikasleek hausnarketak igotzeko aukera*
10. irudia. *Foroan iruzkina egitea*
11. irudia. *Gaiaren lanketarako aditu ezberdinen PDFak*
12. irudia. *CHILDES, ezkerretara bideoa eskuragarri eta eskubitara transkripzioa*
13. irudia. *Analhitzaren webgunea*
14. irudia. *Lanketa eta Egizu! atalak*

# 1. KAPITULUA

---

## Sarrera

---

Jakin badakigu gaur egun teknologiak gure bizitzetan duen garrantzia erabatekoa dela, bai behintzat orain hamar urteko egoerarekin alderatzen badugu. Teknologia gure egunerokotasunean esparru guztietan erabiltzen badugu ere, azken urteotan bada aldaketa nabarmen bat jasan duen arloa: hezkuntza. Izan ere, duela hainbat urte pentsaezina izanik ere, orain nekez irudika genezake ezer irakatsi edo ikastea teknologiarik erabili gabe. Irakasgai guztietan IKTek (Informazio eta Komunikazio Teknologia) euren tokia dutela argi dago, bai eta hizkuntzaren beraren irakaskuntzan ere; zehatzago esanda, haurren hizkuntza-jabekuntzan.

Sarri askotan irakasle izango diren ikasleei hurrek nola hitz egiten duten jakitea zaila egiten zaie. Horrez gain, haur bati hizkuntza irakastea edota hizkuntza zuzentzeko teknikak nola erabili behar diren jakitea ez da erraza izaten, modu horretako elkarrizketa gutxi entzun duenarentzat. Horrez gain, egun, ikastaro gutxi daude hizkuntzako datu errealak nola erabil daitezkeen ikasteko Haur Hezkuntzan eta euskaraz. Ikastaro honetan haurren hizkuntza-prozesuan corpusekin lan egiteak duen garrantziaz jabetuko gara eta, bestalde, feedback zuzentzaile ezberdinak ezagutu eta nola aplikatu ikasiko dugu.

*Corrective feedback* edo, euskaraz, *feedback* zuzentzailea deritzana gai nagusienetako bat da haurren hizkuntza-jabekuntzaren prozesuari dagokionez. Haurren solasaldian sor daitezkeen gramatika nahiz morfologia zailtasun edo akatsak zuzentzeko erabili ohi den baliabide bat da eta bere baitan hainbat mota ezberdin aurki daitezke. Helduak erabiliko duen teknikak baldintzatuko du eman nahi duen argibidearen inplikazio maila (García Mayo & Milla, 2013).

Mekanismo hau hezkuntzan erabili ohi bada ere, ez da feedback zuzentzailea aurki dezakegun arlo bakarra. Izan ere, tresna honek eragina du haurren testuinguru ezberdinetan: familiarrean, beste umeren batekin hitz egitean, besteak beste (Saxton et al., 2005). Feedback zuzentzailearen eraginkortasunari dagokionez, gai hau jorratu

duten ikertzaileek diote oro har emaitza onak ikusten direla haurren hizkuntza-jabekuntzaren garapenean.

Proiektu honen helburua da haur euskaldunek euskaraz egiten dutenean jasotzen dituzten erantzun (feedback) ezberdinak zein diren aztertzea eta solasaldian sorturiko akatsei helduak eman beharreko erantzun egokia zein den identifikatzea. Helburua lortzeko, Moodle bidezko ikastaro bat prestatu da helduentzat.

Horretarako, esan bezala, helduentzako Moodle ikastaro bat sortu dut. Bertan hainbat erreferentzia bibliografikorekin lan egingo dute, jarduera ezberdinak burutuz. Haurren solasaldiaren ikerketa posible egiteko, CHILDESeko *Luque* eta *Soto* corpus data-baseez baliatu naiz. Hemen aurkeztutako helburuak lortzeko, honako ataletan banatu dut ikastaroa:

Lan honen banaketa honakoa izan da:

Lehenik, proiektuaren helburuak eta metodologia azaldu ditut. Metodologia diodanean, Moodle ikastaroa sortzean oinarri hartu dudan antolaketari buruz ari naiz. Jarraian, gaur egungo errealitatea aurkeztu dut. Izan ere, IKTen beharra azpimarratzekoa dela iruditzen zait. Bigarrenik, proiektuaren marko teorikoa aurkezteari ekin diot. Batetik, feedback zuzentzailea azterbide izan duten hainbat aurrekariren lana aipatuko dut. Bakoitzak zehazki zer aztertu duen eta lortutako emaitzen zertzelada txiki bat aurkeztuko dut. Bestetik, feedback zuzentzailea aurkeztuko dut. Hau zer den eta zertan oinarritzen den aipatzeaz gainera, terminologia eta aurki daitezkeen mota ezberdinen sailkapena egingo dut. Honekin batera, mota ezberdinen alderaketa bat aurkeztuko dut, bakoitzaren maiztasun eta eraginkortasuna oinarri hartuz. Honen ostean, Moodle ikastaroaren garapenari helduko diot. Ikastaroaren egitura aipatzeaz gainera, euskarri izan ditudan baliabideak zein izan diren aurkeztuko ditut eta atal bakoitza deskribatuko dut. Bestalde, ikastaroaren metodologia zein den azalduko dut. Azkenik, lan honekin atera ditudan ondorioak aurkeztu ditut.

Esku artean dugun ikastaroari begira, e-learning bidezkoa sortzea izan da gure hautua. Izan ere, helduentzako prestatutako ikastaro bat izanik, helduen errealitatea da kontuan hartu beharrekoa. Lana, familia, etab. dela medio, gure ustea izan da eraman errazagoa dela guztia online egiten den ikastaro bat prestatzea, erdi-presentzialtasunari garrantzia ematea baino.



## 2. KAPITULUA

---

### Proiektuaren helburua eta metodologia

---

Lan honen helburua irakasleentzako ikastaro bat diseinatzea da, adin jakineko umeen outputa ezagutzeko eta irakasleak maila horretako umei feedbacka nola eman jakiteko, elkarrizketa errealean oinarrituta.

Horretarako, CHILDESeko euskarazko corpusean oinarrituko naiz eta Moodle ikastaro bat diseinatuko dut, irakasleei erakusteko nola erabili corpusak umeen solasaldian elkarrizketa/interakzioak irakasteko. Ikastaroa *e-learning* bidezkoa izango da; hau da, online bidez jasotzen den irakaskuntza eta ikaskuntza izango da. Beraz, e-learninga ikaskuntza-prozesuetan malgutasuna eta pertsonalizazioa ekarri nahi duen prestakuntza-modalitate gisa ulertu behar da.

Ikastaroa lau gaietan banatzen da: *Corpusa: zer da?*, *Haur eta helduak solasean*, *Feedbacka: inplizitua ala esplizitua?* eta *Norbere corpusekin lanean*. Bestalde, azken atal bat ere gehitu dut: *Azken produktua*.

Gaiei dagokienez, denetan metodologia bera jarraitu dut: haurren solasaldiaren zuzenketaz hitz egiten duen teoria eta honekin loturiko jarduera ezberdinak. Honetaz gain, azken produktu bat egiteko eskatu diet ikasleei, bertan foro bat eskura utziz dituzten zalantzak argitu ahal izateko. Azkenik, ikastaroaren hasieran eta amaieran autoebaluazio galdetegi bi jarri dizkiet, hasierako ezjakintasunetik amaierako jakintzara bitarteko eboluzioa ikus dezaten.

Gaiei loturik, badu zentzurik gai bat eta bestea horrela antolatu izanaz. Izan ere, ordena jakin horrek armonia bat lortzen du. Lehenik, ikastaroan landu nahi dugunaren sarrera bat egiten dugu. Bigarren eta hirugarren gaiarekin, ikastaroaren muinari heltzen eta honekin praktikatzen jarduten gara. Azkenik, nork bere esparru pertsonalera ekartzen du ikastaroa, bakoitzak inguruan eskura dituen corpusekin "jolastuz".

## 3. KAPITULUA

---

### IKTen beharraz

---

Gaur egun, geroz eta gehiago, teknologiak gure egunerokotasunean duen tokia azpimarratzekoa dela esango nuke. Bai behintzat orain dela hamar urteko egoerarekin erkatuz gero. Teknologiaren barruan IKTek (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) berebiziko garrantzia hartu dutela ezin daiteke alde batera utzi. Egunero egiten ditugun ekintza gehienetan erabiltzen ditugu. Izan ere, mugikorrik edota ordenagailurik gabe bizitzea gaur egun ia ezinezkotzat hartzen dugu. Familia eta lagunekin komunikatzeko *behar* dugu lehena eta (ia) lan guztietarako bigarrena.

Jakin badakigu teknologiaren erabilerak anitzak direla. Lanerako erabil ditzakegu, aisialdirako, erosketak egiteko, etab. Bada, halere, azken urteotan aldaketa sakon bat jasan duen alderdi bat; hezkuntza. Izan ere, duela hamar urte nekez pentsa genezake hezkuntza teknologiaren menpe egongo litzatekeela; baina halakoa dugu gaur egungo errealitatea.

Ikasleek ikasi behar duten edukia jada ez dago paperean soilik. Teknologiari esker, askoz ere gehiago zabaldu da informazioa eskuratzeko aukera eta honen bidez ikasteko aukera. Honek ikaslearengan ikasi beharrekoaren gaineko autonomia gehiago izatea dakar. Ikaslea informazio iturri huts izatetik informazioa bideratzeko tresna izatera igaro da hainbat esparrutan (Osinalde, 2018). Ebaluazioari dagokionez, IKTek erraztu dute ikasleen ebaluazioa egitea. Irakaslearentzat errazagoa da ikaslearen ebaluazioa egunean eramatea, bai eta momentuan egiten ari denari buruz beharrezko azalpenak ematea ere. Aldi berean, ikasleak uneoro bere ebaluazioaren berri izanik, errazagoa da ahulguneak identifikatu eta azkarrago gainditzea.

Halere, aipatu behar da batzuetan lana bukatu ostean ematen diegula ikasleei feedbacka, betiko ohiturak oinarri hartuz. Esan nahi da baliabide berriek ez gaituztela derrigorrez metodologia berriak sortzera eraman.

Testuinguru honetan kokatuko dugu honako proiektua. Has nadin, beraz, ikastaroa aurkezten.

### **3.1. Blended learning ala E-learning?**

*E-learning* deituak ikasleentzat erosoagoak diren egoerak sortzea posible egiten du eta ikaste prozesuetan kontrol handiagoa izatera igarotzen da ikaslea (Cabrero eta Castaño, 2005). Baliabideak eskuragarriago dituenek, esan genezake ikasleari autonomia ematen diola eta, aldi berean, hezkuntza-prozesuan erantzukizun handiagoa izan dezan eskatzen dio.

E-learning moduko ikastaroetan ikasle eta irakaslearen arteko muga zurruna malguago bihurtzen da. Izan ere, irakaslea jada ez da informazioa helarazi dezakeen bakarra eta ikaslearen ikasketa prozesuan gidari izatera aldatzen da bere rola. Ikasleari dagokionez, partaide pasibo izatetik aktibo izatera igarotzen da. Gai da informazioa bere kabuz bilatzeko eta bidean aurrera egiteko.

Ikastaro prozesu hauetan guztia online egiten da, hezkuntza tradizionaletik apur bat urrunduz. Ez dago klase presentzialik, bai ordea klase presentzial horren faltan online bidezko tutoretzak.

*Blended learning* ikastaroetan (*b-learning* bezala ere deitua) ikasle eta irakaslearen arteko muga ere lausotzen da. Halere, hemen aurrez aurreko hezkuntza sisteman baliabide teknologikoak uztartuz egiten dira klaseak. Honek esan nahi duena da kasu honetan ikastaroa erdi-presentziala izango dela.

Ikastaro honi dagokionez, e-learning bidezkoa sortzea izan da gure hautua. Izan ere, helduentzako prestatutako ikastaro bat izanik, helduen errealitatea da kontuan hartu beharrekoa.

## 4. KAPITULUA

---

### Marko teorikoa

---

#### 1.1. Aurrekariak

Gaur egun arte, asko izan dira feedback zuzentzailearen gaia ikertu dutenak. Ondorengo lerroetan oinarri hartu ditudan lanen inguruan jardungo naiz, bakoitzaren ikerketaren nondik norakoak eta lortutako emaitzak deskribatuz.

Batetik, García Mayoren eta Millaren (2013) lana dugu. Feedback zuzentzailea oinarri hartuta, bi testuinguru ezberdin hartu zituzten oinarritzat: batean ingelesa bera zen irakaskuntza-gaia (*English as a foreign language* (EFL)); bestean, berriz, hizkuntza bestelako gai bat irakasteko tresna zen, ez irakaskuntza-gaia (*Content and language integrated learning* (CLIL)). Bietan berehalako erreakzioak ikertu nahi izan zituzten, ahozko interakzioan oinarrituta. Lehenengo kasuan ikusi zuten irakasleak klaseko erritmoa eteten zuela eta bakarrik haurrak egindako akatsaren zuzenketa zentratzen zela (esplizituki). Bigarrenari dagokionez, bestelako jarrera ikusi zuten irakaslearengan; klasearen erritmoari eusten saiatzen zen, akatsaren zuzenketa modu inplizituago batean emanez. Lortutako emaitzak kontuan hartuz, feedback zuzentzailea EFL moduko inguruneetan eraginkorragoa dela ondorioztatu zuten.

Bestetik, Saxtonen (2000) lana dugu. Lan honetan ere haurren solasaldian emandako berehalako erreakzioak dira oinarri. Bi testuinguru bereizi zituen: feedback negatiboa (*negative feedback*) eta ebidentzia negatiboa (*negative evidence*). Lehenengo testuinguruan irakasleak haurrari inplizituki adierazten dio sortu duen formaren batean hutsune edo akatsen bat egin duela. Ebidentzia negatiboan, aldiz, irakasleak zuzenean kontrajartzen du haurraren akatsa eta irakasleak emandako forma zuzena, esplizituki. Bi testuinguruetan, haurrak nekez zuzentzen zuela bere akatsa helduaren eskuhartzerik gabe.

Hattie eta Timperleyren (2007) lanean egindako ikerketatik ateratako ondorio nagusia honakoa da: feedback zuzentzailea eraginkorragoa da haurraren solasean

jada barneratuak dituzten formen akatsak sortzen direnean, ulermen faltagatik eginiko akatsak ekoiztean baino.

Demetras et al.en (1986) lana ere badugu. Haien helburua izan zen aztertzea ea hainbat gurasok euren seme-alabek formulaturiko adierazpen oker edo egokien aurrean zer nolako erantzuna ematen zieten. Feedback zuzentzaile implizitua edo esplizitua erabili zen ikusi nahi izan zuten. Lehenengo mota bigarrenari gailentzen zaiola ikusi zuten; feedback zuzentzaile implizitua esplizitua baino informazio iturri askoz indartsuagoa dela ondorioztatu zuten.

Azkenik, Galdosen (2019) ikerlana dugu. Berak Arbizuko eskolako 3-5 urte bitarteko haurrekin ikerketa-lan bat egin zuen; zehazki, euskarazko marka morfologiko esanguratsua den ergatiboa aztertu zuen. Feedback implizitua eta esplizituaren bidez, haurren solasean sorturiko ergatiboaren akats eta hutsuneak zein modutan zuzentzen ziren ikusi zuen. Galdosen emaitzek erakusten dute feedback implizitua esplizitua baino eraginkorragoa dela eta, bestalde, dio adin tarte txikia izanik, adinak ez duela zertan zuzenketarako ahalmena baldintzatzen.

## **1.2. Feedback zuzentzailea**

Feedback zuzentzailea haurrak hitz egitean sortu duen akats bati buruz eragile (guraso, irakasle, liburu, norbera, gertakizun bat, etab.) batek akatsa zuzentze aldera emandako informazio zuzena da. Irakasle edo guraso batek informazio baliagarria eskaini diezaioke haurrari, liburu batek zalantzaren baten inguruko argibideak eman diezazkioke. Beraz, feedback zuzentzailea jokabide edo interpretazio baten ondorioa izango da.

Honen bidez, haurra gai izan behar da informazioa memorian eraiki, gehitu edota berregituratzeko. Feedback zuzentzailearen bidez emaitza onak lortu daitezten, ikaskuntza testuinguru batean aplikatu behar da. Haurrari eskainitako materiala ezezaguna bada, feedback zuzentzailea erabiltzeak ez du haurraren jarreran ia eragingo, ez baitago jada ezagutzen duenaren eta ezagutarazi nahi den informazioaren artekoa elkar lotzerik (Hattie & Timperley, 2007).

Tresna honen barnean bi mota aurki daitezke: a) feedback zuzentzaile esplizitua eta b) feedback implizitua (ikus 1.3. atala). Feedback zuzentzailearen aurrean helduak hautatzen duen norabideak haurraren ondorengo esku-hartzea edo jokabidea baldintzatzen du (García Mayo & Milla, 2013). Mekanismo honen ikerketek diote oro har emaitza onak ikusten direla haurraren hizkuntza-jabekuntza prozesuan.

### 1.3. Terminologia eta motak

Helduarengandik haur batek jaso dezakeen feedback zuzentzailea inplizitua edo esplizitua izango dela jakin dugu. Zuzenketa esplizituki eginez gero, solasaldiaren erritmoa eten egingo da eta helduak azalpen metalinguistikoak esplizituki emango ditu (ikus 1. adibidea). Kasu honetan haurraren akatsa helduaren zuzenketaz ordezkaturia izango da, modu zuzen batean. Aldiz, zuzenketa inplizituki egiten bada, helduak ez du solasaldia etengo eta estrategia ezberdinak erabiliz haurrari akatsaren berri ematen saiatuko da (ikus 2. adibidea). Kasu honetan, ekintza zeharka gertatzen denez, ez da erritmoa eteten ez eta arreta galtzen; beraz, eraginkorragoa izango da.

Feedback esplizitua<sup>2</sup>, solasaldiaren erritmoa moztuz:<sup>3</sup>

1. CHI: toma [% eus tori] +..

MOT: oi (.) tori +/.

CHI: +, pe(r)lita .

CHI: o(r)ain bestea +/.

MOT: +, san tori.

Feedback inplizitua, solasaldia eten gabe:

2. CHI: zabaltzen dau.

OBS: zer zabaltzen ditu?

CHI: zerratu eta zabaltzen (ditu).

Feedback zuzentzaile inplizituari dagokionez, helduak hainbat mekanismo erabiltzen ditu haurraren solasean esku-hartzeko. Hala nola, birmoldaketak, berrespen egiaztapenak, argitzeko eskaerak, errepikapenak, etab. Bestalde, intonazio aldaketek, bat-bateko geldidune batek edota aurpegiko keinuren batek adieraz diezaioke haurrari zerbait gertatu dela<sup>4</sup> (Saxton, 2000).

3. OBS: dago holan beitu. [% me pongo la pelota entre las piernas como si fuera un tambor].

---

<sup>2</sup> Luque corpusetik hartua: <https://chilides.talkbank.org/access/Other/Basque/Luque.html>

<sup>3</sup> CHI: haurra. MOT: ama. OBS: ikerlaria, irakaslea, heldua.

<sup>4</sup> Honakoa [CHILDES](#) plataforman ikus daiteke, bideoak eta transkripzioak eskuragarri baitaude.

OBS: danborra jotzen holan.

OBS: zuk jotzen dozu danborra?

CHI: 0 [% toca la pelota haciendo ruido]

Adibide honetan ikus dezakegu helduak haurrari keinu bidez zuzentzen diola sorturiko akatsa. Haurrak hasiera batean ezer aipatzen ez badu ere, helduak danborra jotzeko keinua egiten dio eta honek ulertzen du azalpenaren esanahia, modu berean erantzunda.

#### **1.4. Feedback zuzentzaile eraginkorrenaren bila**

Feedback zuzentzailea irakasleek ikasleen arazo gramatikal nahiz lexikoen erabilera zuzena sustatzeko baliatzen duten mekanismoetako bat dela ikasi dugu, eta jarraibide esplizituak edo inplizituak maiz lantzen dira ikasleen adierazpenak zuzentzeko. Halere, tresna hori guraso-haur arteko elkarreraginetan ere aurki daiteke (García Mayo & Milla, 2013).

Aurretik esan bezala, azalpenak esplizituki ematen direnean, akats zuzenketa irekia gertatzen da; solasaldiaren erritmoa guztiz etengo da zuzenketaren azalpena emate aldera. Aldiz, azalpenak inplizituki emateak ez dakar solasaldia etetea. Zeharkako metodo ezberdinak erabiliko dira haurraren akatsa edo hutsunea zuzentzeko (mandatuak, argibide-eskaerak, errepikapenak, intonazio aldaketa, keinuak, etab.).

Demetras et al.en (1986) ikerketan aipatu bezala, feedback inplizitua esplizitua baino maizago eta modu bereizian gertatzen da. Badirudi feedback zuzentzaile inplizitua askoz ere informazio-iturri ahaltsuagoa dela haurraren hizkuntza jabeakuntza prozesuan aurrerapenak ikusi ahal izateko, feedback zuzentzaile esplizitua baino. Ohikoagoa izaten da solasaldia ez etetea eta azalpena inplizituki ematea, haurraren parte-hartze aktiboa sustatzeko eta haurrak arreta gal ez dezan.

Halere, Demetras et al.en (1986) lanari kontrajarriz, feedback esplizituak ikasleen kontzientzia areagotzen duela defendatzen du Fakherrek (2014), hizkuntzaren arteko garapenaren auziari zuzenean heltzen baitio. Bestalde, teknika inplizitua erabiltzean beti dago arriskua formaren bat zuzendutzat ez hartzeko, akatsaren zuzenketa zeharka egiten baita.

Aipatu behar da testuinguruak ere feedback zuzentzaile inplizitu edo esplizituaren erabilera eta eraginkortasuna baldintzatzen dituela. Hizkuntzaren barneko

edukia irakatsi nahi den testuinguruetan ohikoagoa da helduaren erantzunak inplizituki ematea. Aldiz, hizkuntza bera denean ikasgaia, feedback zuzentzailea inplizituki baino esplizituki aplikatzea eraginkorragoa da (Garcia Mayo & Milla, 2013).



# 5. KAPITULUA

---

## Proietuaren garapena

---

### 1. Moodle ikastaroa

Gure ikastaroaren erabiltzaile profila helduak izango dira. Zehaztasunik egitekotan, ez dago goiko mugarik eta erretiroa hartu ostean dagoen orok ere egiteko modukoa dela esango genuke.

Bide batez, edonork ikastaroaren nondik norakoak ezagutu nahiko balitu, honako esteka honetan dago eskuragarri:

<https://ikasgela-birtuala.ueu.eus/course/view.php?id=632>

Ikastaroaren nondik norakoei begira, Moodle plataforman osatuko denez, bertarako sarbidea izango dute ikasle guztiek, matrikulatzean eskainiko zaiena.

Ondorengo azpiatalean jasoko dut ikastaroaren egituraren azalpena eta ikasleak ikusgai izango duena ikastarora sartzen denean.

#### 1.1. Egitura

Has gaitezen egitura aurkezten. Ezkerretara begira jarriz gero, nabigazio barra bat dugu, atalez atal mugitzeko aukera ematen duena (nahi izanda ezkutatu daiteke) eta erdigunean ikastaroa bera ikusiko dugu.


##### 1.1.1. Orokorra

*Orokorra* izeneko atala edozein unetan eskura izango duten atala dugu. Hainbat baliabidez hornitua da. Hiru atal nagusitan bereizten da: *Komunikazio tresnak*, *Ikastaroaren gida* eta *Hasierako ebaluazioa*.

Komunikazio tresnen barruan, alde batetik, unean uneko zalantzak, iruzkinak, kexak edo nahi bezalako komunikazioak irakasleari nahiz gainontzeko ikaskideei helarazteko foroa (*Ikasleen foroa*) dugu, inoiz isten ez dena. Bestetik, BBC (*Blackboard Collaborate*) gunea (*Tutoretzen txokoa*) dugu. Bertan tutoretzak egingo dira ostiralero, astean zehar ikasitakoa online bidezko klase batean egiaztatzeko eta elkarrekin komentatzeko.

Ikastaroaren gidaren atalari dagokionez, izenak aipatu bezala, ikastaroaren nondik norakoak azaltzen dituen *Ikasleentzako gida* dago eskuragarri. Bertan ikasleek ikastarora sarrera txiki bat izango dute, bai eta landuko diren atal guztien aurkezpen bat.

Jarraian hirugarren atala dugu; Hasierako ebaluazioa. Hemen ikasleek euren burua ebaluatuko dute eskura jarri zaien *Hasierako autoebaluazio galdetegiarekin*. Galdetegian ikastaroari loturiko hainbat galdera aurkituko dituzte, eta hasieran euren jakintza noraino heltzen den ebaluatuko dute. Ikastaroaren amaieran beste autoebaluazio galdetegi bat izango dute, ikastaroaren hasierako eta amaierako egoera alderatzeko.



## 1. irudia. Orokorra atala eta ezkerreko zutabea ikusgai

### 1.1.2. Sintesi bidean

*Sintesi bidean* izeneko atala ikastaroaren amaieran aurki dezakegu. Hemen ikastaroan ikusitako guztiaren sintesi bat aurkituko dute ikasleek. Batetik, *Laburpena* dute eskuragarri; ikastaroaren laburpena, hain zuzen ere. Bestetik, *Amaierako autoebaluazio galdetegia*. Galdetegi honekin lortu nahi dena da ikasleek ikastaroa hastean bete zuten galdetegian lortutako emaitzak honakoekin erkatzea, nolabait hasierako ezjakintasunetik amaierako jakintzara emandako jauziaz ohar daitezzen.

## Sintesi bidean

-  Laburpena
- Amaierako ebaluazioa**
-  Amaierako autoebaluazio galdetegia

## 2. irudia. Sintesi bidean atala






### 1.1.3. Gaiak eta Azken Produktua

Bost gaitan banatzen da *Haurren solasaldiaren zuzenketa aztergai* ikastaroa. Ikasleek lau gai izango dituzte eskura eta bosgarren atal bat, ikastaroan zehar ikasitako guztia bilduko duen azken produktu bat aurkezteko erabiliko dutena.

Lehenengo gaiak, *Corpusa: zer da?* izendatua, izenak esan bezala corpusaren esanahia eta erabilera zein den erakutsiko digu. Corpus ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute ikasleek, bata bestearekin alderatu eta hausnartzekoa. Gai honekin lortu nahi dena zera da: ikasleak haurren solasaldia aztertzeko corpusaren beharraz ohartzea eta honetarako corpus-mota egokiena zein den ondorioztatzea.

#### 1. Corpusa: zer da?

##### Lanketa

-  Corpusa
-  Corpusa, informazio iturri aberasgarri eta fidagarria
- Egizu!**
-  1.1 Corpus ezberdinen hausnarketa
-  1.2 Corpus errealak VS antzeztuak
- Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: **1.1 Corpus ezberdinen hausnarketa** jarduera osatua eta gaindituta dago
-  1.3 Corpus ezberdinak taldean alderatzen
- Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: **1.2 Corpus errealak VS antzeztuak** jarduera osatua eta gaindituta dago

## 3. irudia. 1. gaia. Corpusa: zer da?

Bigarren gaia *Haur eta helduak solasean* dugu. Honakoan, jada, corpus ezberdinen barruan aurki dezakegun informazioarekin hasiko gara lanean. Batetik, ikasle bakoitzak bere egoeraz hausnartuko du; norberak haur bati akats edo hutsune bat nola zuzentzen dion (zuzentzen badio) kontatu beharko du. Bestetik, haur euskaldunengan lehen morfologia markak eta hitzak nola sortzen diren azaltzen duen

artikulu baten<sup>5</sup> laburpena egingo dute eta, azkenik, Hizkuntzalaritzan doktorea den Ibon Manterolaren tesia (2010) oinarri hartuz, haurren ipuin kontaketen analisiari erreparatuko diote. Gai honetan sakontzearen helburua ikasleek haurren benetako solasaldia analizatu eta ematen diren zuzenketa ezberdinak identifikatzen jakitea da.

## 2. Haur eta helduak solasean

### Lanketa

 Nola zuzentzen diozu akats bat haurrari?

 Helduen zuzenketa ezberdinak

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: [Nola zuzentzen diozu akats bat haurrari?](#) jarduera osatua eta gaindituta dago

 Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan

### Egizu!

 2.1 Lexikoaren eta gramatikaren garapena

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: [Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan](#) jarduera osatutzat markatuta dago.

### Lanketa

 Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan

### Egizu!

 2.2 Haurren ipuin kontaketen analisia

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: [Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan](#) jarduera osatutzat markatuta dago.

## 4. irudia. 2. gaia. Haur eta helduak solasean

Hirugarrenik, *Feedbacka: inplizitua ala esplizitua* gaian murgilduko gara. Izenak adierazten duen bezala, feedback zuzentzailearen mundua ezagutuko dute ikasleek. Tresna honen barnean zein mota dauden ikasiko dute. Luque (Luque, 2014) eta Soto (Valle & Alonso, 2015) corpusetatik hartutako haurren solasaren hainbat adibide ikusiko dituzte. Honen bidez, adibideetan helduak zein feedback mota erabiltzen duen haurraren akatsa zuzentze aldera eta zein zuzenketa mota ageri den identifikatuko dute ikasleek. Bestatik, feedback zuzentzaile inplizitua eta esplizituaren alderaketa egiten ikasiko dute, bi artikulu<sup>6</sup> oinarri hartuz. Helburua batak zein besteak dituen ezaugarriak zein diren identifikatzea izango da, haur eta helduaren arteko solasaldi errealei erreparatuta.

<sup>5</sup> Barreña, A., Garcia, I. (2009). Lehenengo hitzak eta morfologia-markak haur euskaldunengan: elebkarrengan eta elebidunengan. *Euskara*, 54(2-1), 603-638.

<sup>6</sup> García Mayo, M.P and Milla, R. (2013). Corrective feedback episodes in oral interaction: a comparison of a CLIL and an EFL classroom. *International Journal of English Studies*, 14(1), 1-20.

Hattie, J., & Timperley, H. (2007). The Power of Feedback. *Review of educational Research*, 77(1), 81-112. Doi: 10.3102/003465430298487.

### 3. Feedbacka: inplizitua ala esplizitua

#### Lanketa

-  [The power of feedback](#)
-  [Corrective feedback episodes in oral interaction](#)

#### Egizu!

 3.1 Solasaldia aztertzen: haur eta helduak elkarrekintzan

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean:

- **The power of feedback** jarduera osatuztat markatuta dago.
- **Corrective feedback episodes in oral interaction** jarduera osatuztat markatuta dago.

 3.2 Feedback zuzentzaile inplizitua eta esplizitua alderatzen

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: **3.1 Solasaldia aztertzen: haur eta helduak elkarrekintzan** jarduera osatua eta gaindituta dago

### 5. irudia. 3. gaia. Feedbacka: inplizitua ala esplizitua


Laugarren eta azken gaia *Norbere corpusekin lanean* dugu. Norbere errealtateari emango diogu garrantzia hemen. Batetik, Iruskieta et al.en (2018) lanean oinarrituz, gure corpusekin lanean zer ikasi eta irakatsi dezakegun ikusiko dugu. Ondoren, ANALHITZA (Otegi et al., 2017) plataforma erabiliko da ikasleen corpusekin “jolasteko”.

Bestalde, H5P tresna ere erabiliko dute. H5P HTML5 paketerako laburdura bat da. Hezitzaileei edukia sortzeko aukera ematen die, hala nola aurkezpenak, azterketak eta bideo interaktiboak. Honela beraz, bideo interaktiboen bidez gaian jorratuko dena sakonago landuko dute (ikus 7. irudia).


Azken gai honekin lortu nahi dena zera da: ikastaroan ikasitakoa errealago egitea bakoitzaren errealtatearekin alderatuz, eta haurren solasaldia aztertzeko eskura dugun beste tresna erabilgarri bat ezagutzea, etorkizunean ikasleek euren kabuz erabil dezaten.

### 4. Norbere corpusekin lanean


#### Lanketa

-  [Gure corpusekin jolasean](#)
-  [Analhitza: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research](#)

#### Egizu!

 4.1 Zer i(ra)kas dezakegu gure korpusekin "jolastuz"?

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: **Gure corpusekin jolasean** jarduera osatuztat markatuta dago.

 4.2 ANALHITZA

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: **4.1 Zer i(ra)kas dezakegu gure korpusekin "jolastuz"?** jarduera osatua eta gaindituta dago

### 6. irudia. 4. gaia. Norbere corpusekin lanean

Corpusekin «jolastea» hizkuntza bat i(ra) kasteako metodo osagarri bat izan daiteke, zergatik?

Corpus handiagoak eta askotarikoagoak ditugulako eskura euskarri elektronikoan, eta corpusen erabilera ere nabarmen handitu delako azken urteotan.

Analisi horien baitan azter daitezkeelako testuetan erabili den hizkuntza, planifika daitezkeelako ikas-metodologiak edota sortu ikas-material berriak.

1 / 11 ▶

### 7. irudia. H5P tresna

Azken produktuari dagokionez, ikastaroan zehar gai guztietan landutakoa modu bateratuan aurkezteko unea helduko zaie. Kasu honetan, bakoitzak bere solasaldia aztertuko du. Transkribatu eta, feedback zuzentzailearen motak ikasita, solasaldiaren inguruan dauden pertsonen nolako erantzuna ematen dien (edo ematen ez dien) identifikatu beharko dute. Gainera, gai honetan sakondu ondoren, ikasitakoa aplikatu eta esan beharko dute ea jasotako erantzuna egokia den ala ez. Azken atal honen helburua ikasleek ikastaro guztian landutakoa praktikan jarri eta haur bati hizkuntza bat irakasteko metodo egokiena zein den identifikatzen jakitea da.

## Azken produktua

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: **4.2 ANALHITZA** jarduera osatua eta gaindituta dago

### 8. irudia. Azken produktua

#### 1.2. Baliabideak

Proposamen hau osatzeko, ikaskuntza kudeatzeko plataforma batez baliatzea zen helburua. Hau honela, egungo hezkuntza sisteman oso ezaguna den Moodle<sup>7</sup> plataforma izan da baliabide nagusi (UEUko Moodle instalazioan), batez ere, ordenagailu, tablet edota mugikorra duen edonorentzako eskuragarri dagoelako eta kode-irekiko tresna dugulako.

<sup>7</sup> Moodle plataformaren orria: <https://moodle.org/?lang=es>

Moodle hezitzaileei, administratzaileei eta ikasleei ikaskuntza-giro pertsonalizatuak sortzeko sistema integratu bakarra, sendoa eta segurua emateko diseinatutako ikaskuntza-plataforma bat da. Honi gehituz, hezkuntza-prozesu askotan erabilia denez, ikastaroa tresna honen bidez sortzeko bitarteko ziurtzat jotzen dugu.

Plataforma hau eta bereak eskaintzen dituen baliabide nahiz tresna ezberdinak izango dira nagusi ikastaroan, baina baita sareko beste gune batek eskaintako bideo eta audioak; *CHILDES*.<sup>8</sup>

*CHILDES (Child Language Data Exchange System)* lehen hizkuntza-eskuraketaren datuen erreferentzia zentro gisa erabiltzeko balio duen corpus bat da. Gaur egun, hainbat eduki ditu (transkripzioak, audioak eta bideoak) 26 hizkuntzatatik hartutako 130 corpusetan, guztiak internet bidez eskuragarriak.

Plataforma hau ikastaroan zehar baliagarria izango da haur eta helduen elkarrekintza aztertu eta haurraren solasean nahiz helduaren erantzunean dauden ezaugarriak identifikatzeko.

Bestalde, hizkuntzaren prozesamenduko tresna bat ere aipatu behar dugu; *Analhitza*.<sup>9</sup> Tresna honek edozein testutan maiztasunik handienaz ageri diren hitzak zerrendatzen ditu. Hizkuntzaren teknologiak erabiliz, giza eta gizarte-zientzietako ikerlariak hizkuntza-analisi fidagarriak eta erraz manipulatzeko modukoak lor ditzaten diseinatu da *Analhitza*.


### **1.2.1. Erabilera**

Aipaturiko tresna digital hauek helburu ezberdinekin erabiliko dituzte ikasleek. Batetik, Moodlek eskaintako baliabide ezberdinak euren iritzia eta hausnarketak partekatzeko erabiliko dira.

---


<sup>8</sup> CHILDES plataformaren orria: <https://childes.talkbank.org/>

<sup>9</sup> Analhitza platarofmaren orria: <http://ixa2.si.ehu.eus/clarink/analhitza.php?lang=es>



### 9. irudia. *Ikasleek hausnarketak igotzeko aukera*

Giro informalago batean, foroetan elkarri iruzkinak egingo dizkiote, bai eta norbere zalantzak argitu.



### 10. irudia. *Foroan iruzkina egitea*

Aldi berean, euren kabuz jakintza areagotu dezaten, ikasleek hainbat adituren lanak izango dituzte eskura, esteka<sup>10</sup> nahiz PDF moduan, horiek irakurri eta euren hausnarketa aberasteko.

<sup>10</sup> Esaterako, Ahotsak.eus eta Ikasbil guneak.



## Lanketa

 Gure corpusekin jolasean

 Analhitza: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research

### 11. irudia. Gaiaren lanketarako aditu ezberdinen PDFak

CHILDES plataformari dagokionez, aurretik aipatu bezala, haurren audio, bideo eta transkripzioak lantzeko erabiliko da. Gunean bertan aukera dago aldi berean haurren bideo edo audioak entzun eta transkripzioa irakurtzeko.



The screenshot shows the CHILDES interface. On the left, there is a file browser showing a folder structure: 'TalkBank: CHILDES' and 'chilides / Other / Basque / Soto / Aintzane /'. A list of files is shown, with '040504' selected. Below the list is a video player showing '0:00 / 31:09'. At the bottom left, there is a 'Folder:' field with 'chilides/Other/Basque/Soto/Aintzane/' and a 'chains' dropdown menu. On the right, there is a transcript window with the following content:

```
@Location: Leitza-Goizueta, Nafarroa, Spain
@Situation: Ama eta aita sukaldean daude. Amaia jolasgelan. Bittor eta Ma Reyes pasiluan daude, caseta eta bideoarekin. Aintzane pasiluan dago ere, Bittor eta Ma Reyesi begira, guztiz moztuta.
@Types: long, toyplay, TD

1 OB1: ze (.) Aintzane (.) lasai jolasteko (.) apa (.) benga .
2 OB1: honek xxx egiten (.) hola patzen da .
3 SIS: Aintzane .
4 OB2: jun zaitez jolastea ba (.) e .
5 OB2: ez za aspertuko ?
6 CHI: 0 [=! ezetz buruaz] . [+ trn]
7 OB2: ez ?
8 SIS: tori !
9 SIS: hitzein .
10 SIS: yolastu .
11 SIS: xxx .
12 SIS: <yolastu eta hitzein> [/] yolastu eta hitzein .
13 SIS: hitzein .
14 SIS: xxx .
15 SIS: hitzein [/] (.) benga (.) hitzein [/] hitzein .
16 CHI: eman .
17 SIS: hitzein .
18 CHI: eman hori .
19 SIS: baño esan fuerte .
20 SIS: ala (.) erori in tzaio .
21 OB1: aber (.) jarriko dizut .
22 OB1: bueno .
23 OB1: hator .
```

### 12. irudia. CHILDES, ezkerretara bideoa eskuragarri eta eskubitara transkripzioa

Bestalde, Analhitza euren testuak analitzeko erabiliko dute. Ordenagailuan duten testu bat plataformak eskaintzen duen tokira igo eta Analhitzak emandako emaitzak aztertu beharko dituzte, ondoren ikaskideekin partekatuzko.

EU EN ES



ANALHITZAK euskarazko, gaztelaniako edo ingeleseko testu batetik ondorengo informazio linguistikoa erauzten lagunduko dizu:

- izenak, adjektiboak, aditzak, adberbioak...
- pertsona-izenak, leku-izenak...
- binakako, hirunakako eta launakako hitz-sekuentziak
- ... eta gehiago!

Testua fitxategi batean duzuna, hemen bertan kopiatuko duzuna edo web-orri batekoa izan daiteke, baina UTF8 kodeketan egon beharko du.

ANALHITZA erabiltzeko, sartu aztertu nahi duzun testua azpiko 3 aukera hauetakoren bat erabiliz, eta jarraian, testuaren hizkuntza aukeratu (euskaraz, gaztelania edo ingelesa). Apur bat itxaron ondoren, emailzak Excel fitxategi batean jasoko dituzu. Horrela, emailzak modu errazean moldatu ahal izango dituzu zure beharretara.

Fitxategia igo (txt formatuan)      Sartu testua      Uri-a sartu

## 13. irudia. Analhitzaren webgunea

### 1.3. Ikastaroaren metodologia

Osatu dugun ikastaroaren xedea helduek haurren ahozko jardunean sor daitezkeen akatsak edota hutsuneak nola zuzendu jakitea da. Honen bidez, haurren hizkuntza jabekuntzan lagundu eta sor daitezkeen arazo bati aurre egiten ikasiko dute.

Ikastaroaren nolakotasunari dagokionez, *e-learninga* da honetan uztartuko dena. *E-learning* edo *online* ikasteko prozesuak erabiltzeak ikasleentzako eramangarriagoak diren egoerak sortzea ahalbidetzen du. Honen bidez, ikaslea bere ikasketa-prozesuaren jabe da eta kontrol edo autonomia gehiago izaten lagundu dezake (Cabrero eta Castaño, 2005). Mota honetako ikastaroetan irakaslea eta ikaslearen arteko rola eta harremana aldatu egiten dira. Jada ez dago irakasle eta ikaslearen arteko muga zurrunik; lausoa da. Halaber, irakasleak informazio iturri bakar bat izateari uzten dio, ikaslearen eskura hainbat eta hainbat iturri ezberdin irekita utziz. Esan daiteke, hezkuntza tradizionalan dugun hierarkia hautsi egiten dela.

Ikaslearen autonomia oinarri bihurtzen da ikasketa-prozesuan. Ibilbide guztian zehar jarri zaizkion trabak gainditzera behartuta dagoenez, nolabaiteko ahalegina eskatzen dio. Bestalde, ikaskide nahiz irakaslearen laguntza gehigarria ager daitezkeen oztopoak gainditzeko giltzarri izango da. Horrela, ikasle sortzaile, ekintzaile nahiz berritzaileak lortuko ditugu (Osinalde, 2018).

Metodo hau, urruneko irakaskuntza bezala ulertua, normahik nonahi ikas dezan dago prestatua. Honakoa, bakarkako ikasketan oinarritzen bada ere, badu elkarlanetik ere. Bakartasunean oinarritzearen arrazoia norberak nahi bezala antolatzean datza.

Antolaketari helduz, ikastaroa osatzen duten atal guztietan ikus daiteke egitura jakin bat, uneoro errepikatzen dena. Ikasleek, ikastarora sartzean, *Lanketa* eta *Egizu!* tokiak topatuko dituzte. Izenok adierazi bezala, gai bakoitzean lehenengo gaiari dagokion teoria lantzeko txokoa izango dute eta, jarraian, landutako teoria praktikan jartzeko aukera. *Lanketaren* atalean hainbat modutan landuko da teoria; bai gaiari dagokion adituen lan ezberdinak edota irakasleak prestaturiko teoria irakurriz bai eta ezer landu aurretik ikasleei gaiak dakitena azaltzeko eskatuz. Bestalde, *Egizu!* atalari begira, hainbat modu ezberdinetan jarriko da praktikan teorian ikasitakoa, berau egiaztatzeko: iritzia emanaz, aurkezpena prestatuz, zeregin bati erantzunez, galdetegia, etab.

### 3. Feedbacka: inplizitua ala esplizitua

#### Lanketa

 The power of feedback

 Corrective feedback episodes in oral interaction

#### Egizu!

 3.1 Solasaldia aztertzen: haur eta helduak elkarrekintzan

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean:

- **The power of feedback** jarduera osatuztat markatuta dago.
- **Corrective feedback episodes in oral interaction** jarduera osatuztat markatuta dago.

 3.2 Feedback zuzentzaile inplizitua eta esplizitua alderatzen

**Eskuragarritasun murriztua** Ez eskuragarri hurrengoak bete ezean: **3.1 Solasaldia aztertzen: haur eta helduak elkarrekintzan** jarduera osatua eta gaingiditua dago

## 14. irudia. Lanketa eta Egizu! atalak

*Lanketa* eta *Egizu!* atalen artean hierarkia moduko bat topa dezakegun bezala, atazen artean ere. Esan nahi dena da, ikasleak gai bakoitzean ordena jakin bat jarraitu behar duela, jakintza behar bezala beregana dezan. Gai guztietan, teoria landu arte ezin izango du ikasleak praktikarekin jarri. Hala moduz, ataza bat amaitu arte, ezin izango du hurrengoarekin hasi. Izan ere, atazetan aurrera egin ahala, dedikazioa areagotzea eskatzen du.

Ariketak baldintzatuta daude. Gehienek aurretik teoria landu izana eskatzen dute. Hierarkia edota ordena mantentzearekin lortzen duguna zera da: batetik, ikasleak teoria barneratu duela egiaztatzea eta, bestetik, atazen arteko armonia bermatzea.

### 1.4. Gaitasun digitalak

Ikastaro honetan trebatzen diren ikasleek, e-learning bidezkoa izanik, hainbat gaitasun digital eskuratuko dituzte amaierarako. Alderdi teknologikoari emango zaio garrantzia. Izan ere, erabiliko diren metodologia eta baliabide ezberdinen bidez zenbait

kompetentzia digital bereganatuko dituzte ikasleek. Honako bost arlotan banatzen dira aipatzen ditugun gaitasunak:

- Informazioa
  - Informazioa miatzen eta iragazten ikasiko dute.
  - Aurkitutako informazioa baliotsua den ebaluaten jakingo dute.
- Komunikazioa
  - Teknologiaren bidez elkarri eragiten ikasiko dute txat, foro edo tutoretzen bidez. Bai eta irakasleari fitxategiak bidaltzen jakin, honela edukia partekatzen trebatuko direlarik.
  - Netiketa zaintzen ikasiko dute.<sup>11</sup>
  - Kanal digitalen bitartez kolaboratzen trebatuko dira.
  - Nortasun digitala eraikitzen ikasiko dute.
- Eduki digitalak
  - Edukiak garatzen, integratzen eta berregiten ikasiko dute.
  - Programazioa landuko dute.
- Segurtasuna
  - Gailuen nahiz norbere datu pertsonalen babes egokia egiten ikasiko dute.
- Arazoen ebazpena
  - Ezbeharririk egonez gero, gaitasun digitalen hutsuneak identifikatzen eta arazo teknikoei nola aurre egin ikasiko dute. Beren kabuz konpontzea zaila den egoeretan, laguntza eskatzen ikasiko dute.

Ikasleek eskuratuko dituzten gaitasun digitalak neurtzeko, honako errubrika (ikus 1. taula) izango dugu oinarri (Osinalde, 2018). Errubrika honen bitartez ebaluazioa behar beste aldiz errepikatzeko aukera egongo da, batez ere, ikasleak euren eboluzio eta hobekuntzaren jakitun izan daitezen edota, behar izanez gero, laguntza egokia jaso dezaten.

---

<sup>11</sup> Eremu birtualean jarduteko gizalegezko araei deitzen zaie honela. Beste era batera esanda, foroetako eta antzeko eremuetako elkarrekintza horietan eduki beharreko jarrerak.

	<b>Mailak</b>		
<b>Irizpideak</b>	<b>Oinarrizkoa</b>	<b>Tartekoa</b>	<b>Aurreratua</b>
<b>Informazioa</b>	Ez du informazioa miatzen, ezta egokia den ebaluatzen ere.	Informazioa bilatzeko gai da, baina ez du egoki ebaluatzen.	Informazio egokia aurkitzeko gai da.
<b>Komunikazioa</b>	Gutxitan bidaltzen ditu mezuak forora. Erantzun, aldiz, inoiz ez. Ez du ongi asmatzen zereginak plataformara igotzen.	Forora mezuak igortzen ditu baina elkarrekintzan ez da sartzen. Maiz, bidalketak egoki egiten ditu.	Irakaslearekin nahiz gainontzeko ikaskideekin komunikazio aktiboa du, eduki beharreko jarrerarekin. Bidalketak egoki egiten daki.
<b>Eduki digitalak</b>	Zailtasunak ditu eduki digitalen sorreran. Programazio exkaxa.	Eduki digitalak sortzeko gai da ia beti.	Eduki digitalak sortzeko gai izateaz gain, eduki horiek hobetu nahia erakusten du.
<b>Segurtasuna</b>	Askotan berari eta ikaskideei buruzko informazioa zabaltzen du.	Gehienetan ikaskideen eta bere informazioa egoki erabiltzen du.	Gailuen nahiz ikaskideen edota norberaren datuak seguru erabiltzen daki.
<b>Arazoen ebazpena</b>	Moodle plataformarekin dituen arazoak lanerako oztopo bihurtzen zaizkio maiz.	Gehienetan gai da plataforman sortzen zaizkion arazoaren ebazpena egiteko.	Sorturiko arazoaren hutsuneak identifikatzeko eta aurre egiteko gai da, bai eta laguntza eskatzeko ere.

**1. Taula.** Lantzen diren gaitasun digitalak neurtzeko errubrika.

Errubrika oinarri izatearen arrazoi nagusia metodo ulergarria eta sinplea dela izango litzateke. Hemen ikus dezakegunez, alde nabarmena dago oinarrizko mailatik maila aurreratura bitartean. Halaber, argi dago maila baten eta bestearen arteko aldea. Beraz, egokia iruditzen zait ikasle guztiak ebaluatzeko modu bateratu bat izatea.

## 6. KAPITULUA

---

### Ondorioak

---

Hezkuntza tradizional horretatik urundu eta aurrerapauso bat eman asmoz, *Moodle* plataforma aukeratu dugu eta honek badu bere arrazoia. Erabilerraza izateaz gain, kode irekikoa da eta aro digital honetan denon eskuetara iritsi daiteke. Halaber, plataforma honetan irakasle nahiz ikasleek ikasmateriala sortzeko, partekatzeko edota berregiteko ez dago zailtasun nabarmenik. Bestalde, ikastaroari begira gaudelarik, gehitu behar da plataforma honek aukera ematen duela sortutako gai nahiz ataza guztien artean lotura jakin bat egoteko. Hau da, ikastaro batean ez du zentzurik inolako harremanik ez duten ariketa solteak ipintzeak, ez baita ezarritako gaian sakontzen ez eta jakintza areagotzen. Unitate didaktiko bat edo ariketa multzo bat barnebiltzen duen bitarteko bat osatzen bada, bilduma osoaren bateragarritasunari begiratu behar zaio.

Hausnarketa saioaren ostean, ikastaroa egite aldiari heldu nion. Hona hemen, era laburrean, ikastaroa egiteko asmoa duen orok aurkituko duena, lehendabiziko aldiz erabiltzaile moduan sartzean. Bost ataletan banatzen da ikastaroa; lau gai eta azken atal gehigarri bat:

Lehenengoa *Corpusa: zer da?* dugu. Hemen, gai guztietan bezala, lehenik *Lanketa* atala landu behar dugu, praktikarekin hasi baino lehen. Praktikari dagokionez, hiru ataza dira bete beharrekoak. Ikastaroaren atal bakoitza bezala, hau ere astebeteko epean burutu beharrekoa. Ostiraleroko tutoretza orduetan egiaztatuko dugun arren, ikasleak noiznahi eta nonahi burutu ditzake esleitu zaizkion atazak:

- Lehenengo atazan ikasle bakoitzak corpus ezberdinen hausnarketa du egiteke, galdetegi moduan. Corpus ezberdinen adibideak izango ditu ikusgai, bai *Lanketa* atalean landutako teoria praktikan jartzeko, bai webgune ezberdinetako adibideekin lan egiteko. Hemen bere ustez erantzun egokia zein den adierazi beharko du, hausnartu ondoren.
- Bigarren ataza zeregin bat da, corpus errealak eta antzeztuak alderatzea eskatzen duena. Honetarako, corpus ezberdinen hainbat esteka izango

ditu eskura eta bata bestearekin erkatuz, bere iritzia partekatu beharko du irakaslearekin.

- Gai honetako hirugarren eta azken ataza ikaskideek batak besteari azalduko diote euren iritzia, corpus ezberdinetan topatutakoa alderatuz. Elkarri iruzkinak egingo dizkiote foroan.

Bigarrenean, *Haur eta helduak solasean* gaia, gehiago sartuko gara ikastaroaren muinean. Nork bere errealitateari erreparatzeko eskatuko zaio. Lehenik lanketa egin beharko dute eta jarraian bi ataza:

- Hausnarketa moduan, ikasleari pentsarazi egingo diogu, haur bati akats bat zuzentzen al dion edota nola zuzentzen dion azaltzeko eskatuz. Honekin jarraituz, ondoren adibide erreala batzuk emango zaizkie eta helduek haurrei emandako zuzenketa ezberdinak ezagutuko dituzte.
- Atazei begira, batetik, haur euskaldunengan sortzen diren lehenengo hitzak eta morfologia-markak zein diren azaltzen duen lana irakurri eta, honakoa ulertu dutela egiaztatzeko, laburpen bideo bat prestatu beharko dute.
- Bestalde, gaia nork bere errealitatera ekarriz, haurren ipuin kontaketa erreparatu beharko diote eta solasaldia erreala ala buruz ikasitakoa den hausnartu.

Hirugarren atalari helduz, feedback zuzentzailearen nondik norakoak landuko dituzte *Feedbacka: inplizitua ala esplizitua* gaian. Fenomeno honen esanahia ezagutzeko, hainbat adituren lanak izango dituzte eskura, bai zer den ezagutzeko eta baita bere barruan aurki daitezkeen motak ikasteko ere. Hauek irakurri eta bertan ikasitakoa praktikan jarriko dute zeregin ezberdinekin:

- Berrero ere, haur eta helduen elkarrekintza errealean adibideei erreparatu beharko diote. Kasu honetan, ordea, feedback zuzentzailearen ikuspegitik. Adierazi beharko dute adibideetan zein feedback mota ageri den, ezer ageri bada.
- Bestetik, H5P aurkezpen interaktibo bat ikusi eta burutu beharko dute. Irakaslearen azalpenak entzun eta jarraian galderei erantzunda.

Laugarren gaiari *Norbere corpusekin lanean* izena eman diogu. Azken gaia dugu honakoa eta honek ere gaia norbere errealitatean aplikatzeko helburua du. Bi azpigai nabarmendu daitezke: norbere corpusekin lan egitea zer den eta honetarako erabili daitezkeen baliabide baten aurkezpena; Analhitza. Bi hauen lanketa egitea dagokie

ikasleei, lehenbizi. Honetarako, hainbat adituren lanak dituzte eskura. Atazei begira, bi dira burutu beharrekoak.

- Lehenik eta behin, aurretik erabilitako H5P tresna azaltzen zaigu. Oraingoan ere aurkezpen interaktibo bat izango da, baina irakaslearen azalpenik gabe. Atazarekin hasi aurretik irakurri beharreko lanean oinarritzen da. Ikasleak hainbat egiteko izango ditu, aukera anitzak eginez edota galderei iritzia emanda erantzunez. Aurkezpenaren amaieran kalifikazioa lortuko du. Ataza hau burutzen duenean, hurrengo egiteko aukera izango du.
- Aipatu bezala, Analhitza gunea zer den ikasiko dute. Ataza hau egin ahal izateko, *Lanketa* atalean duten lana irakurri beharko dute, bertan aipatzen baita zer eta nola erabili tresna hau. Analhitza gunea erabili beharko dute, euren benetako testuez baliatuz. Hau da, Analhitzak aztertuko die euren testua zer nolakoa den. Emaitzak Excel bidez jasoko dituztenez, klasekideekin partekatu beharko dituzte ikasleen foroan, bai eta tresnaren beraren inguruan duten iritzia. Honen bidez, aurrerantzean erabilgarria suertatuko zaien tresna bat ezagutuko dute.

Azkenik, bosgarren atalari egin behar diogu lekua. Azken produktu bat aurkeztu beharko dute ikasleek. Produktuan ikastaroan zehar ikasitako guztia praktikan jarri beharko dute. Hau izango da beraien unea, benetan jakintza bereganatu dutela erakusteko. Azken produktuan sorturiko zalantzetarako foro zehatz bat izango dute:

- Aurkezpen bat sortu beharko dute nork bere haur garaiko solasaldia aztertuz. Aurkezpen hori azken tutoretza saioan aurkeztuko dute eta, gainera, aldeztu aurretik aurkezpena zeregin moduan partekatu behar dute irakaslearekin.

HEZik graduondo guztian zehar nahiz azken hilabeteotan ikastaroa sortzen eman ditudan orduekin lortutako emaitza izan da honako proiektua. Ekoitzitako ikastaroa ez da noraezean sortua, baina ezta hasieran asmo nuen esparru guztiak beregain hartzen dituen ere. Halere, ezin aipatu gabe utzi ikastaroa egin ahala ikasitakoak eta ezagututakoak gaurtik aurrerako nire ibilbide pertsonal nahiz profesionalean betebeharrak egokiago diseinatzen nahiz aberasten lagunduko didala. Halaber, ikastaroan proposatzen dudana, haurren hizkuntza-jabekuntzan sortutako akatsei nola erantzun jakitea, edozein irakasle zein helduri baliozkoa zaiola deritzot.



Ikastaro honek UEUren ikasgela birtualean du tokia. Bertan trebatzeko, administraileak (kasu honetan, nik) erabiltzailea matrikulatu beharko luke. Hau esanik, has nadin hasieran ipinitako helburuak hona ekartzen.

Esan nahiko nuke gai hau bera jorratu nuela iaz nire Gradu Amaierako Lanean. Gai hau graduondoan ikasitako guztira ekartzeak hainbat gaitan nire jakintza aberasteko aukera eman dit. Batetik, haurren hizkuntza-jabekuntzan feedback zuzentzailearen esparruan sakontzeko aukera eman dit. Bestetik, iazko gai bera aurten beste ikuspegi batetik lantzeak bide berriak ireki dizkidala esan dezaket.

Proiektu honetan erabilitako metodoaren egokitasuna arrazoitzen ahaleginduko naiz. Horretarako, lehenik aipatu behar da ikastaroan zehar hainbat irakasle aditu eta gai esploratzeko aukera edukitzea izan dela hemen aurkezten dudana aurrera eramanez izateko oinarria. Bestetik, hainbat egileren lanak alboan edukitzeak hornitu du proiektua eta eurek aipatutakoa nire ekarriak oreka bat lortzera bideratu nuela.

Ikastaroari so, ezaugarri garrantzitsuena honakoa dela esango nuke: ikastaroa online plataformako baliabideekin uztartzeak ikasleen autonomia eta prozesu osoarekiko kontrola areagotzea posible egiten du. Matrikulatzen den orok ikastaro honekin bakarka, irakaslearekin edota ikaskideekin elkarlanean aritzeko aukera dute teknologiaren baitan komunikatzeko gaitasunak bereganatzen dituzten bitartean.

Garrantzia eman zaion beste alderdi bat feedback zuzentzailearena da. Termino hau eta berak barne biltzen duen guztia errealitatera ekartzeak ez du hain gai arrotza bihurtzen haurren hizkuntza-jabekuntzarena. Alderdi honetan sakondu nahi izan da, garrantzitsua delako heldu guztien esku-hartzea. Haurren hizkuntza-jabekuntzaren prozesuan sortzen diren akatsak ez dira soilik irakasleen esku utzi behar; guztioi dagokigun betebeharrak bat da.

Esparru zabalagoari ere eskaini zaio tokia ikastaroan. Nolabait esateko, ikasleek gai honen inguruan jakintza bereganatzea. Izan ere, hain ezaguna ez den gai honetan ezagutza eskuragarri izatea garrantzitsua da, bai eta jakintza sortzeko eta partekatzeko gaitasuna eskuratzea. Esan genezake hemen aipatutako ildoari jarraitzen diola proiektu honek. Ikastaroaren muina den gaiari buruz ezagutza hedatzeaz gain, gaitasun digitalak lantzeko aukera ere eskaintzen baitugu. Tresna teknologikoak erabiltzen ohitutako eta maiztasun txikiagoz erabiltzen dituztenen arteko batetortze edo armonia lortzea erronka izan da, baina lortu dugu, guztientzako moduko ikastaroa sortu baitugu.

Amaitze aldera, aipatu behar dut pozarren xehetu ditudala hasiera batean buruan neuzkan ideia solte horiek. Ezinbestekoa iruditzen zait haurren hizkuntza-jabekuntzaren gaia arrotasunetik gertko gai bat bailitzan tratatzea, hala behar baitu izan. Izan ezean, nekez aurreratuko dugu hain garrantzitsua den gai honetan. Izan ere, denon esku dago haurren solasaldiaren zuzenketa egoki bat egiten jakitea.

Hasierako helburutzat neukan egitekoa inguru erreal eta gertukoetara ekartzea, gaia eraman errazagoa izan zedin, eta ikasle bakoitzak benetako egoerei aurre egiteko bitarteko egokiak eskura izatea. Hainbat ingurune erreal aztertu ditugu prozesu honetan guztian zehar, norbere ingurune errealerira iritsi arte. Halere, ikastaroa egoki diseinatu eta genituen baliabideak ahal bezain ongi baliatu arren, badira aztertu gabe utzi ditugun hainbat errealitate, eremu pertsonalean zentratu baikara. Beraz, balio dezala lan honek ondorengoak aberasteko eta etorkizunean etor daitezkeen lanak ongi etorriak izan daitezela, esku artean dugun hau aberasteko.

## Bibliografía

---

- Cabero, J. & Castaño, C. (2005). Bases pedagógicas de la Teleformación. En Cabero, J. (Dir.): "Formación del profesorado universitario para la incorporación del aprendizaje en red en el Espacio Europeo de Educación Superior". Universidad de Sevilla y Ministerio de Educación y Ciencia.
- Demetras, M., Post, K., & Snow, C. (1986). Feedback to first language learners: The role of repetitions and clarification questions. *Journal of Child Language*, 13(2), 275-292. doi:10.1017/S0305000900008059.
- Fakher, Z. (2014). The Effect of Implicit and Explicit Types of Feedback on Learners' Pragmatic Development. *Social and Behavioral Sciences* 98. 463– 471. Doi: 10.1016/j.sbspro.2014.03.441.
- Galdos, N. (2019). Ergatiboaren erabilera argibide eskariekin duten eragina. III. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. 59-68. UEU. Baiona, Euskal Herria.
- García Mayo, M.P and Milla, R. (2013). Corrective feedback episodes in oral interaction: a comparison of a CLIL and an EFL classroom. *International Journal of English Studies*, 14(1), 1-20.
- Hattie, J. and Timperley, H. (2007). The Power of Feedback. *Review of Educational Research*, 77, 81-112. University of Auckland. DOI: 10.3102/003465430298487.
- Iruskieta, M., Otegi, A., Uria, L., Diaz de Ilarraza, A., Artolazabal, A. (2018). Zer i(ra)kas dezakegu geure corpusekin "jolastuz"? In *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz*. Etxebarria et al. (ed.). UPV/EHU. 35-66 or.
- Luque, M.LL. (2004). Adquisición-aprendizaje del Euskara a través de la inmersión total precoz (2-4 años): Análisis psico-socio-lingüístico-pedagógico. Tesis Doctoral, Universidad del País Vasco (UPV/EHU).
- Manterola, I. (2010). Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa. Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz, Euskal Herria.
- Osinalde, M. (2018). Euskara ikastaro erdi-presentziala HEOn, B1 maila. UEU.
- Otegi, A. Imaz, O. Díaz de Ilarraza, A. Iruskieta, M. Uria, L. 2017. ANALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research. *Procesamiento del Lenguaje Natural* 58: 77-84.
- Saxton, M. (2000). Negative Evidence and Negative Feedback: Immediate Effects on the Grammaticality of Child Speech. *First Language*, 20, 221-252.
- Saxton, M., Houston-Price, C., & Dawson, N. (2005). The prompt hypothesis: Clarification requests as corrective input for grammatical errors. *Applied Psycholinguistics*, 26(3), 393-414. doi:10.1017/S0142716405050228.
- Valle, R. S., & Alonso, G. A. (2015). Apuntes sobre la adquisición de la morfosintaxis del euskera en niños de 2 y medio a 5 años, *Revista de Logopedia, Foniatría y Audiología*, 35(1), 30-49.